

12. GAIA

1. TRIBUTU KREDITUAREN BERMEAK

1) SARRERA

Tributu ordenamendu juridikoaren kezka garrantzitsu bat da berak ezarri eta araututako tributuak eragingarriak izatea, hau da, kreditu hauek kobratu ahal izatea. Horretarako, tributu administrazioari datuak eta txostenak emateko eginbeharra dago, premiamendu bidea ere erabili dezake, zehazpenak ere erabili ditzake...

Tributu arauak xedatzen dituzten botere eta betebeharrak azken helburua dute tributu zorra beteko dela bermatzea. Zuzenbidean, orokorrean, zorra zordunaren ondareak bermatzen du. KZ 1911. artikulua agintzen du zordunak bere obligazioez erantzun behar duela gaurko eta geroko ondasunekin. Berme orokor horretaz gain, TLOk tributu kreditua bermatzeko neurri bereziak ezartzen ditu.

2) LEHENTASUN OROKORRA

TLO 77. artikulua arautzen du adieraziz muga-eguneratuta baina ordaintzeke dauden tributu kredituak lehentasunez kobra ditzake ogasun publikoak zordunaren gainerako hartzekodun guztien aurretik. Halere, Ogasun Publikoak ez du lehentasunik Administrazioaren eskubidea agertzen den egunaz aurretik dagokion erregistroetan behar bezala inskribatutako jabetza, bahi, edo beste edonolako eskubide erreala duten hartzekodunekin.

Azken kasu hauetan, Administrazioak inskribatu baino lehen beste hartzekodunek inskribatu zuten euren eskubidea inskribatu zuten erregistroan. Hau da, administrazioak bere idatz-oharra egin baino lehen erregistroan.

Lehentasun orokorra aplikatzeko tributu kredituak muga-eguneratuak eta ordaintzeko izan behar dira. Berme hau Estatuan, AEtan eta toki-ogasunetan aplikatzen da.

Lehentasun hau edozein tributu motatan aplikatzen da, eta eragina du subjektuaren ondasun guztietan.

Hasiera batean, TLOren 77.2 artikulua gaineratzen zuen konkurtso egoeretan 2003ko uztailaren 9ko konkurtso legea aplikatuko zela Administrazioa hitzarmen batera iristen baldin bazen.

2011ko erreformaren ondorioz, konkurtso prozesu batean tributu kredituak konkurtso legeak ezarritakoaren menpe geldituko dira.

Merkatal arloko epaitegiek eta AG-k adierazi zuten konkurtso kasuetan konkurtso legea aplikatu behar zela. Horregatik, aldatu zen 77.2 art.

Konkurtso egoera aitortu baino lehen ez bazen jakinarazi enbargo diligentsia, Ogasunak premiamendu prozedura eten behar du eta konkurtsora joan beste hartzekodunekin batera.

Lehentasun orokorraren barruan korrituak, zehapenak eta errekarquak kreditu subordinatuak dira. Lehentasun orokorra, printzipio moduan, bigarren lekuan dago eta gainera lehentasunak bakarrik kuotari aplikatzen zaio, eta kuotaren %50 soilik bermatzen du, salbu atxikipenen kasuan (atxikipenen kasuan %100 bermatuta dago).

3) AFEKZIO ESKUBIDEA

TLO 78. artikuluan arautzen da. Tributu administrazioak eskualdatzen diren ondasunen gain duen eskubide erreala da. Bere helburua da bermatzea eskualdaketa hauek kargatzen dituzten tributuak kobratuko direla. Eskualdaketa kontzeptuan sartzen dira negozio mota guztiak, adibidez salerosketa, oinordetza, dohaintza, inportazioak...

Gauza eskuratu duenak modu subsidiarioan gauzarekin erantzuten du tributu zorra ez bada ordaintzen, baina doktrinak dio eskuratzailerak ez dela benetan erantzule subsidiarioa, erantzule subsidiarioak erantzuten duelako bere ondare guztiarekin eta ez kasu honetan bezala bakarrik hartutako gauzarekin. Horregatik esaten da berme erreala dela eta ez pertsonala.

Edukizailerak ez du erantzuten Erregistroaren fede publikoak eskuratzailerak babesten badu edota merkataritza zein industria establezimendu batean eskuratzen denean gauza higigarria onustez eta titulu zuzenaz.

TLO 79.2 artikulua dio: *Los bienes y derechos transmitidos quedarán afectos a la responsabilidad del pago de las cantidades, liquidadas o no, correspondientes a los tributos que graven tales transmisiones, adquisiciones o importaciones, cualquiera que sea su poseedor, salvo que éste resulte ser un tercero protegido por la fe pública registral o se justifique la adquisición de los bienes con buena fe y justo título, en establecimiento mercantil o industrial, en el caso de bienes muebles no inscribibles.*

Berme erreal honek eskualdaketak zergapetzen dituzten tributuak bermatzen ditu, adibidez oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, eskualdaketa zerga edo aduanetako zerga.

4) ATXIKIPEN ESKUBIDEA.

TLO 80. artikuluan arautzen da. aduanetan aitortzen diren merkantzien gain Tributu Administrazioak badauka atxikipen eskubidea. Bere helburua da adunatako zergak eta zor fiskalak (adibidez inportazioen gainean aplikatzen den BEZa) ordainduko direla. Zenbatekoari dagokionez, atxikitzen diren gauzak bermatzen dituzte, likidatutako zergak eta eskubideak.

Bakarrik aplikatzen da zor horiek beste modu batera ez badira bermatzen.

5) ISILBIDEZKO LEGE-HIPOTEKA

TLO 78. artikulua dio erregistro publiko batean inskribatzeko moduko eskubide zein ondasunek edo horien ekoizkiak aldizka kargatzen dituzten tributuetan Estatuak, AEk eta toki-

korporazioek lehentasuna dutela urte horretako eta hurrengo urteko zorrak kobratzeko, nahiz eta beste hartzekodunek edo eskuratzailleek euren eskubideak erregistroak inskribatuak izan.

Isilbidezko lege hipoteka deitzen zaio legeak zuzenean sortzen duelako hipoteka eskriturarik egin gabe eta Jabetza Erregistroan inskribatu gabe, baina hipotekaren indar berarekin.

Nahiz eta Jabetza Erregistroan tituluak inskribituak izan (adibidez jabetza eskubidea) beti lehentasuna du berme honek, baina bakarrik tributu mota batzuk bermatzen ditu: Erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen eskubide edo ondasunak edo horien ekoizkiñak zergapetzen dituztenak. Gaur egun, ondasun higiezinaren gaineko zergan aplikatzen da.

6) BESTE BERMEAK

- A) **Banku abala.** Administrazioak tributu zorra geroratu edo zatitzea erabakitzen badu, orokorrean banku abala, hipoteka, lekualdaketa gabeko bahia edota edozein beste berme eskaini behar du.
- B) **Zehapenak.** Tributu betebeharrak ez badira betetzen, zehapenak ezartzen dira. Zehapenaren kezkak bermatzen du tributu betebeharrak beteko direla.
- C) **TLOren 81. artikuluko kautelazko neurriak.** Tributu zorra kobratuko dela bermatzeko badaudenean arrazoiak pentsatzeko kobratze hori ezin izango dela egin, edota larriki oztopatuko dela, tributu administrazioak kautelazko neurriak har ditzake eta hauek dira:
 - a. Tributuen itzulketen edo beste ordainketen atxikipenak
 - b. Ondasunen eta eskubideen enbargo prebentiboa, eta behar baldin bada, aurreneurritzko idatz-oharra.
 - c. Eskubideen eta gauzen besterenganatzea edota kargatzearen debekua.
 - d. Enpresek kontratugileei eta subkontratugileei egin beharreko ordainketen zati bat atxikitzea, bermatzen dira azken hauek egin beharreko atxikipenak eta jasanarazpenak.
 - e. Legeak aurreikusitako beste edozein berme.